# Atzerriko Hizkuntza Ikastetxeko GALDETEGIA Bertsio Nazionala (euskaraz)

# PISA 2025 Azterketa nagusia

2026

Zuzendari jaun/andre agurgarria:

Eskerrik asko azterlan honetan parte hartzeagatik. Galdera-sorta honek honi buruzko informazioa eskatzen du:

• Ikastetxeari buruzko informazio orokorra.

• Ikastetxeko Zuzendaritza.

• Irakasleak.

• Ebaluazioa.

• Xede-taldeak.

• Ikastetxeko giroa.

Informazio horrek ikastetxe-taldeen arteko antzekotasunak eta aldeak azaltzen lagunduko du, ikasleen proben emaitzen testuingurua hobeto ezarri ahal izateko. Adibidez, baliabideen eskuragarritasunak ikasleen lorpenean zein eragin izan dezakeen zehazten lagun dezake emandako informazioak (herrialdeen artean nahiz herrialde beraren barruan).

Galdera-sorta zuzendariak edo hark izendatutakoak erantzun beharko du. Galdera-sorta erantzuteko 60 minutu inguru beharko lituzke.

Galdera batzuei erantzuteko baliteke trebetasun espezifikoak behar izatea. Kontsulta diezaiekezu adituei, galdera horiei erantzuten laguntzeko.

Galdera bat ez badakizu zehatz-mehatz erantzuten, gehien hurbiltzen dena nahikoa izango da azterlanaren helbururako.

**Zure erantzunak isilpean gordeko dira. Beste zuzendari batzuek emandako erantzunekin bateratuko dira, guztizko emaitzak eta batezbestekoak kalkulatzeko; eta emaitza horien arabera ezingo dira ikastetxeak identifikatu.**

**SC001** **Honako definizio hauen artean, zeinek deskribatzen du egokien zure ikastetxea kokatuta dagoen komunitatea?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC001Q01TA | Herri txikia, herrixka edo landatar eremua (3000 biztanle baino gutxiagokoa). | ☐ 01 |
| SC001Q01TA | Herri txikia (3000 eta 15 000 biztanle artekoa, gutxi gorabehera). | ☐ 02 |
| SC001Q01TA | Herria (15 000 eta 100 000 biztanle artekoa, gutxi gorabehera). | ☐ 03 |
| SC001Q01TA | Hiria (100 000 eta 1 000 000 biztanle artekoa, gutxi gorabehera). | ☐ 04 |
| SC001Q01TA | Hiri handia (1 000 000 eta 10 000 000 biztanle artekoa, gutxi gorabehera). | ☐ 05 |
| SC001Q01JA | Megahiria (10 000 000 biztanle baino gehiagokoa). | ☐ 06 |

**SC013** **Zure ikastetxea publikoa ala pribatua da?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | | |
|---|---|---|---|
| SC013Q01TA | Ikastetxe publikoa<br>(Gobernuak izendatutako edo bozketa publikoz hautatutako hezkuntza publikoko agintari batek, gobernu-erakunde batek edo gobernu-batzorde batek zuzenean edo zeharka kudeatzen duen ikastetxea da.) | ☐ | 01 |
| SC013Q01TA | Ikastetxe pribatua<br>(Gobernuz kanpoko erakunde batek, adib., elizak, sindikatu batek, enpresa batek edo beste erakunde pribatu batek zuzenean edo zeharka kudeatzen duen ikastetxea da.) | ☐ | 02 |

| **SC016** | **Ikasturte arrunt bateko finantzaketa orokorraren zer portzentaje datorkizue honako iturri hauetatik?**<br><br>*(Sartu zenbaki bat erantzun bakoitzerako. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)* | |
|---|---|---|
| | | % |
| SC016Q01TA | Gobernua (udalak, diputazioak, erkidego edo estatu mailako sailak barne). | ______ |
| SC016Q02TA | Gurasoek edo tutoreek ordaindutako ikasleen matrikulak edo ikastetxeko gastuak. | ______ |
| SC016Q03TA | Ongileak, dohaintzak, ondareak, babes ekimenak, gurasoengandik edo tutoreengandik lortutako finantziazioak. | ______ |
| SC016Q04TA | Beste batzuk. | ______ |
| | Guztira | % 100 |

*Seme-alabentzako ikastetxea aukeratzean gurasoek edo tutoreek dituzten aukerak ezagutu nahi ditugu.*

**SC011** **Honako adierazpen hauetatik, zeinek deskribatzen du egokien zure herrian ikasleei eskaintzen zaien eskolatzea?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC011Q01TA | Gure ikasleengatik lehiatzen diren beste bi ikastetxe edo gehiago daude inguru honetan. | ☐ 01 |
| SC011Q01TA | Gure ikasleengatik lehiatzen den beste ikastetxe bat dago inguru honetan. | ☐ 02 |
| SC011Q01TA | Ez dago gure ikasleengatik lehiatzen den beste ikastetxerik inguru honetan. | ☐ 03 |

**SC002** **2025eko martxoaren 1ean, zenbat ikasle zeuden guztira ikastetxean izena emanda (ikasle-kopurua)?**

*(Sartu zenbaki bat erantzun bakoitzerako. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC002Q01TA | Mutil-kopurua: | ____________ |
| SC002Q02TA | Neska-kopurua: | ____________ |

**SC211** **DBHko 4. mailako ikasleen zer portzentajek ditu honako ezaugarri hauek zure ikastetxean, gutxi gorabehera?**

*(Kontuan izan ikasle bakoitza hainbat kategoriatan sar daitekeela.)*

*(Mugitu graduatzailea erantzun bakoitzari dagokion portzentajera.)*

SC211Q02JA Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak




SC211Q03JA Desabantaila sozioekonomikoak dituzten etxeetako ikasleak




SC211Q06JA Ikasle errefuxiatuak




*“Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak" dira ikasteko premia berezi bat ofizialki identifikatuta duten ikasleak, mentalki, fisikoki edo emozionalki desabantailaren bat dutelako (horren barruan sartzen dira dislexia eta arreta gabezia eta hiperaktibitate nahasteak -AGHN-). Sarri, haien heziketa babesteko baliabide publiko edo pribatu gehigarriak (langileenak, materialak edo dirulaguntzak) jaso dituzten ikasleak izango dira.*

*"Desabantaila sozioekonomikoak dituzten etxeak" dira bizitzeko oinarrizko beharrak ase gabe dituztenak, esaterako, etxebizitza, elikadura edo arreta mediko egokia.*

*"Errefuxiatuak", gudatik, errepresio politikotik, jazarpen erlijiosotik edo hondamen natural batetik babesteko beste herrialde batera ihes egindakoak dira, haien lege egoera gorabehera.*

**SC018** **Irakasle hauetako zenbat daude zure ikastetxeko langileen artean?**

*Kontuan hartu lanaldi osoko eta partzialeko irakasleak. Lanaldi osoa duen irakaslea lanaldiaren % 90ean dago enplegatuta gutxienez, ikasturte osorako irakasle gisa. Gainerako irakasle guztiak lanaldi partzialekotzat hartu beharko dira. Kualifikazio mailari dagokionez, aipatu goi-mailako kualifikazioak dituzten irakasleak soilik.*

*(Sartu zenbaki bat hutsune bakoitzean. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)*

| | | Lanaldi osoa | Lanaldi partziala |
|---|---|---|---|
| SC018Q01TA | Irakasleak, GUZTIRA. | ______ | ______ |
| SC018Q02TA | Ofizialki gaitutako irakasleak. | ______ | ______ |
| SC018Q08JA | Gradua edo Lizentzia duten irakasleak. | ______ | ______ |
| SC018Q09JA | Masterra duten irakasleak. | ______ | ______ |
| SC018Q10JA | Doktoregoa duten irakasleak. | ______ | ______ |

**SC400** **Honako irakasle hauetako zenbat daude zure ikastetxeko zientzia-irakasleen (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) artean?**

*Kontuan hartu lanaldi osoko eta partzialeko irakasleak. Lanaldi osoa duen irakaslea lanaldiaren % 90ean dago enplegatuta gutxienez, ikasturte osorako irakasle gisa. Gainerako irakasle guztiak lanaldi partzialekotzat hartu beharko dira.*

*Hartu kontuan soilik ikasturte honetan zientziak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) irakatsi dituzten edo irakatsiko dituzten irakasleak.*

*(Sartu zenbaki bat hutsune bakoitzean. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)*

| | | Lanaldi osoa | Lanaldi partziala |
|---|---|---|---|
| SC400Q01DA | Zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) GUZTIRA. | ______ | ______ |
| SC400Q02DA | Zientzia-irakasle (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) emakumezkoak. | ______ | ______ |
| SC400Q03DA | Ofizialki gaitutako zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia). | ______ | ______ |
| SC400Q04DA | Gradua edo baliokidea duten zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia). | ______ | ______ |
| SC400Q05DA | Gradua edo baliokidea, eta Masterra edo Doktoregoa duten zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia). | ______ | ______ |
| SC400Q06DA | Gradua edo baliokidea, eta didaktika espezifikoko prestakuntza duten zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia). | ______ | ______ |
| SC400Q08DA | Industria esanguratsu batean (adib., ingeniaritzan, ikerketan) esperientzia profesionala duten zientzia-irakasleak (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia). | ______ | ______ |

**SC410** **Zure ikastetxeko irakasleen zer portzentajek ditu honako ezaugarri hauek, gutxi gorabehera?**

*(Kontuan hartu irakasleak hainbat kategoriarekin bat etor daitezkeela.)*

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Batek ere ez | % 1etik % 25era | % 26tik % 50era | % 51tik % 75era | % 75ek baino gehiagok |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC410Q01DA | Irakasle immigranteak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC410Q02DA | Gutxiengo etnikoetako irakasleak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC410 | *"Gutxiengo etniko" dira honako dinamika historiko hauen ondorioz eta/edo honako ezaugarri partekatu hauen ondorioz sortutako taldeak: egoera geografiko eta antzinako jatorria, tradizio kulturalak, sinesmen erlijiosoak, arau sozialak, ondare eta hizkuntza partekatua eta/edo immigrante-izaera eta jatorrizko nazionalitatea.* | | | | | |

**SC168** **Behean zerrendatutako lanpostu bakoitzerako, adierazi ikastetxean egun lanean ari diren eta irakasleak ez diren langile-kopurua.**

*(Kontuan izan irakaslea ez den langile bakoitza hainbat kategoriatan sar daitekeela.)*

*(Sartu zenbaki bat hutsune bakoitzean. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC168Q01DA | Laguntzaile pedagogikoak, laguntzen dituzten ikasleen ikasmaila/adina edozein delarik. | ____________ |
| SC168Q01JA | *Irakasten duten edo irakasleei irakaslanean laguntzen dieten irakasle laguntzaile edo irakasle ez diren langile, curriculum profesionaleko/prestakuntzako espezialista eta hezkuntzako bitartekoetan espezialista guztiak barne.* | |
| SC168Q05DA | Ikasleen ongizatean jarduten duten langileak. | ____________ |
| SC168Q05DA | *Psikologoak, erizainak eta aholkulariak barne.* | |
| SC168Q02JA | Ikastetxeko administrazioko langileak. | ____________ |
| SC168Q02JA | *Harrerako, idazkaritzako eta administrazioko langileak barne.* | |
| SC168Q03JA | Ikastetxeko kudeaketako langileak. | ____________ |
| SC168Q03JA | *Zuzendariak, zuzendari-laguntzaileak eta jarduera nagusia kudeaketa duten beste langile batzuk barne.* | |
| SC168 | *Zenbaki osoa* | |

**SC059** **Egiazkoak al dira zure ikastetxeko zientzia-departamentuei (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) buruzko honako baieztapen hauek?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez |
|---|---|---|---|
| SC059Q09DA | Zailagoa da zientzia-irakasle (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) onak erakartzea, beste ikasgai batzuetako irakasleekin alderatuta. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC059Q10DA | Laborategiko materialak egoera onean daude. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC059Q06NA | Ikasmaila guztietako ikasleek normalean erabili ahal izateko behar adina laborategiko materiala dugu. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC059Q07NA | Zientzia-irakasleen (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) irakaslanari laguntzeko laborategiko irakasle gehigarriak ditugu. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC059Q08NA | Gure ikastetxeak diru gehigarria gastatzen du zientziako (biologia, geologia, fisika, kimika, teknologia) ekipamendu berrian. | ☐ 01 | ☐ 02 |

**SC012 Zenbatean behin hartzen dituzue aintzat honako faktore hauek, ikasleak zure ikastetxean matrikulatzeko onartzen dituzuenean?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Inoiz ez | Batzuetan | Beti |
|---|---|---|---|---|
| SC012Q01TA | Ikaslearen errendimendu akademikoari buruzko txostena (maila ezartzeko probak barne). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q02TA | Ikaslea datorren ikastetxearen gomendioa. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q03TA | Gurasoek edo tutoreek ikastetxearen filosofia hezitzailea edo erlijiosoa onartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q04TA | Ea ikasleak programa berezi bat behar duen edo horretan interesa duen. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q05TA | Egungo ikasleen edo ikasle ohien senideei lehentasuna ematea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q06TA | Toki jakin batean bizitzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q08JA | Ikaslearen diziplina-espedientea, ikastetxe honetakoa edo beste batekoa. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q10JA | Ikaslearen guraso-egoera edo haurdunaldia. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q11JA | Ikaslearen lan-egoera. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q12JA | Ikaslearen testuinguru kulturala edo etnikoa. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC012Q13DA | Ea ikasleak hezkuntza premia bereziak dituen. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |

**SC185** **Zure ikastetxean, zein neurritan da probable DBHko 4. mailako ikasle bat beste ikastetxe batera lekualdatzea honako arrazoi hauengatik?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Ez da probablea | Probablea da | Oso probablea da |
|---|---|---|---|---|
| SC185Q01WA | Lorpen akademiko apalak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC185Q02WA | Lorpen akademiko handiak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC185Q03WA | Jokabide-arazoak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC185Q04WA | Hezkuntza premia bereziak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC185Q05WA | Gurasoek edo tutoreek hala eskatzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |

**SC169** **Zure ikastetxeak lanbide-orientazioa eskaintzen die DBHko 4. mailako ikasleei?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC169Q01JA | Bai. | ☐ 01 |
| SC169Q01JA | Ez. | ☐ 02 |

**SC210 Beheko zein baieztapenek deskribatzen du ondoen zure ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleen egoera?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC210Q01JA | Lanbide-orientazioa borondatezkoa da ikasleentzat. | ☐ 01 |
| SC210Q01JA | Lanbide-orientazioa ofizialki programatuta dago ikasleen ikastorduen barruan. | ☐ 02 |

**SC170 Nork du DBHko 4. mailako ikasleei lanbide-orientazioa eskaintzeko erantzukizun nagusia zure ikastetxean?**

*(Hautatu erantzun bat.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC170Q01JA | Lanbide-orientazioa irakasle guztien ardura da. | ☐ 01 |
| SC170Q01JA | Irakasle jakin batzuek dute lanbide-orientazioaren ardura nagusia. | ☐ 02 |
| SC170Q01JA | Ikastetxean enplegatutako lanbide-orientazio aholkulari jakin batek edo gehiagok dute lanbide-orientazioaren erantzukizun nagusia. | ☐ 03 |
| SC170Q01JA | Ikastetxea normalean bisitatzen duten lanbide-orientazio aholkulari jakin batek edo gehiagok dute lanbide-orientazioaren erantzukizun nagusia. | ☐ 04 |

**SC171 Zure ikastetxeak honako informazio hau eskaintzen die DBHko 4. mailako ikasleei?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez |
|---|---|---|---|
| SC171Q01JA | Praktikaldiei buruzko informazioa. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC171Q02JA | Etorkizuneko ibilbide profesionalei buruzko informazioa. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC171Q03JA | Etorkizuneko hezkuntza-aukerei buruzko informazioa. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC171Q04JA | Ikasleentzako finantzabideei buruzko informazioa (adib., ikasleentzako maileguak edo diru-laguntzak). | ☐ 01 | ☐ 02 |

**SC202 Nork du honako hauetarako erantzukizun nagusia zure ikastetxean?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Zuzendariak | Zuzendaritza taldeko irakasleek edo kideek | Eskola kontseiluak | Udalak | Autonomia erkidegoak | Ministerioak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SC202Q01JA | Irakasleak izendatzea edo kontratatzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q02JA | Irakasleak lanetik kaleratzea edo aldi baterako kaleratzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q03JA | Irakasleen hasierako soldatak ezartzea, soldata-eskalak barne. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q04JA | Irakasleen soldata-igoerak ezartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q05JA | Ikastetxeko aurrekontua egitea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q06JA | Aurrekontu-esleipenei buruzko erabakiak hartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q07JA | Ikasleen diziplinako arauak eta prozedurak ezartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q08JA | Ikasleak ebaluatzeko arauak ezartzea, estatuko/autonomia erkidegoko ebaluazioenak barne. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q09JA | Ikasleak ikastetxean sartzeko eskaerak onartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SC202Q10JA | Irakaskuntzarako zer material erabiliko den aukeratzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q11JA | Ikasgaien edukia zehaztea, estatuko/autonomia erkidegoko curriculuma barne. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |
| SC202Q12JA | Zer ikasgai eskainiko diren erabakitzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 | ☐ 06 |

**SC201 Azken 12 hilabeteetan, zuk edo zuzendaritza taldeko beste kideek zenbatean behin hartu duzue parte honako jarduera hauetan?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Inoiz ez edo ia inoiz ez | Urtean behin edo bitan, gutxi gorabehera | Hilean behin edo bitan, gutxi gorabehera | Astean behin edo bitan, gutxi gorabehera | Egunero edo ia egunero |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC201Q03JA | Irakasleei feedbacka ematea, geletan behatutako irakaslanean oinarrituta. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC201Q04JA | Irakaskuntzako praktika berriak garatzeko, irakasleen arteko elkarlana sustatzeko neurriak hartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC201Q05JA | Irakasleek haien irakaslanerako gaitasunak hobetzeko ardura hartzen dutela ziurtatzeko neurriak hartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC201Q06JA | Irakasleak ikasleen ikasketa-emaitzen arduradun sentitzen direla bermatzeko neurriak hartzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC201Q07JA | Gurasoei edo tutoreei ikastetxearen eta ikasleen errendimenduari buruzko informazioa ematea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC201Q12DA | Beste ikastetxe batzuetako zuzendariekin zeregin zailetan | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | lankidetzan aritzea. | | | | | |
| SC201Q11JA | Ikastetxe honen garapen profesionalerako plan bat lantzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |

**SC064** **Azken ikasturtean, ikasleen guraso edo tutoreen zer proportziok hartu dute parte ikastetxeari lotutako honako jarduera hauetan?**

*(Mugitu graduatzailea leku egokira. Guraso batek ere ez badu jardueran parte hartu, hautatu "0" (zero). Hautatu "100" (ehun) guraso guztiek parte hartu badute jardueran.)*

SC064Q05WA Irakasle batekin seme-alabaren portaeraz hitz egin, gurasoek edo tutoreek eskatuta.

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q06WA Seme-alabaren portaeraz hitz egin, seme-alabaren irakasleetako batek eskatuta.

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q01TA Seme-alabaren garapenaz hitz egin irakasle batekin, gurasoek edo tutoreek eskatuta.

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q02TA Seme-alabaren garapenaz hitz egin, irakasleren batek eskatuta.

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q04NA Jarduera fisikoetan edo curriculumetik kanpokoetan boluntarioki parte hartu (adib., eraikineko mantentze-lanetan, arotzeria-lanetan, lorezaintzan edo lorategiko lanetan, ikastetxeko jolasetan, kiroletan, irteeretan).

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q03TA Ikastetxe barruko gobernu-batzordeetan parte hartu (adib., guraso elkartean edo Ordezkaritza Organo Gorenean).

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

SC064Q07WA Ikastetxearentzako diru-bilketan parte hartu.

[ - ] (−) 0 ——— 100 (+)

**SC192 Azken ikasturtean, ikastetxeko langileek zenbatean behin egin dituzte honako hauek?**

*(Langileen artean daude irakasleak, laguntza pedagogikorako profesionalak, ikastetxeko administrazioko langileak eta ikastetxearen kudeaketakoak.)*

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Inoiz ez edo ia inoiz ez | Urtean zenbait aldiz | Hilabetean zenbait aldiz | Astean behin edo gehiagotan |
|---|---|---|---|---|---|
| SC192Q01JA | Gurasoak edo tutoreak ikastetxeko jardueretan boluntario aritzera gonbidatu. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC192Q02JA | Gurasoekin edo tutoreekin elkarrizketak hasi ikastetxeko programen inguruan. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC192Q03JA | Gurasoekin edo tutoreekin elkarrizketak hasi haien umeen aurrerapenaren inguruan. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC192Q04JA | Ikastetxeko erabakiak hartzeko lanean gurasoak edo tutoreak inplikatu. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC192Q05JA | Gurasoei edo tutoreei informazioa eman ikasleei etxeko lanekin laguntzeari eta beste curriculum-jarduera batzuei buruz. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC192Q07DA | Ikasleei eta tutoreei informazioa eman, ikasleei zientzietako gaitasunak garatzen laguntzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |

**SC004 Honako galdera-sorta honen helburua da zure ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleen gailu digitalen ratioari buruzko informazioa biltzea.**

*(Sartu zenbaki bat erantzun bakoitzerako. Sartu "0" (zero) bat bera ere ez badago.)*

| | | |
|---|---|---|
| SC004Q01TA | Zure ikastetxean, zenbat ikasle daude guztira DBHko 4. mailan? | ___________________ |
| SC004Q02TA | Gutxi gorabehera, zenbat mahai gaineko ordenagailu edo ordenagailu eramangarri daude ikastetxean eskuragarri ikasle horientzat hezkuntza-helburuetarako? | ___________________ |
| SC004Q03TA | Gutxi gorabehera, mahai gaineko ordenagailu edo ordenagailu eramangarri horietatik zenbat daude Internetera konektatuta? | ___________________ |
| SC004Q08DA | Gutxi gorabehera, zenbat tablet gailu (adib., iPad®, Galaxy Book®, Fire®) daude eskuragarri ikasle horientzat hezkuntza-helburuetarako? | ___________________ |
| SC004Q09DA | Gutxi gorabehera, zenbat liburu-irakurgailu (hala nola liburuak pantailetan irakurtzeko gailu eramangarriak, adib., Amazon® Kindle™, Kobo) daude erabilgarri ikasle horientzat hezkuntza-helburuetarako? | ___________________ |
| SC004Q07NA | Gutxi gorabehera, Internet konexioa duten zenbat mahai gaineko ordenagailu edo ordenagailu eramangarri daude erabilgarri irakasleentzat zure ikastetxean? | ___________________ |

**SC261 Azken ikasturte akademikoan zehar, zure ikastetxeko gailu digital guztien artean zein portzentajek zuen honako software hauetarako sarbidea?**

*(Pentsa ezazu hainbat gailu digitaletan, esaterako, mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak eta tabletak.)*

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bat ere ez | % 1 - % 25 | % 26 - % 50 | % 51 - % 75 | % 76 - % 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC261Q01DA | Testu-tratamenduko programa (adib., Microsoft® Word™). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q02DA | Multimedia-aurkezpen bat sortzeko softwarea (adib., Microsoft® PowerPoint™). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q03DA | Bideoak sortu eta editatzeko softwarea (adib., iMovie, Final Cut Pro, InShot). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q04DA | Musika sortu eta editatzeko softwarea (adib., Audacity, GarageBand). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q05DA | Programaziorako softwarea (adib., Scratch, Python, Java). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q06DA | Datuak bildu eta gordetzeko softwarea (adib., datu-gordailuak, Microsoft® Access™, Google® Form, kalkulu-orriak). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |
| SC261Q07DA | Webguneak sortu edo editatzeko softwarea (adib., WordPress). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 | ☐05 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC261Q08DA | Ikaskuntza kudeatzeko sistema (adib., Moodle, Blackboard, Schoology, Canvas). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC261Q09DA | Online lankidetzarako softwarea (adib., Miro, Google Jamboard). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC261Q10DA | Errealitate birtualaren edo areagotuaren softwarea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |

**SC262 Zure ikastetxeak honako politika edo arau mota hauetakoren bat ezarri du DBHko 4. mailako ikasleentzat?**

*(Pentsa ezazu hainbat gailu digitaletan, esaterako, mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak eta tabletak.)*

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez |
|---|---|---|---|
| SC262Q01DA | Ikasle bakoitzak gailu digital bat du, ikastetxean erabiltzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC262Q02DA | Ikasleek gailu digitalak partekatu behar dituzte gelan, ez dagoelako ikasle bakoitzarentzako gailu nahikorik. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC262Q03DA | Gailu digitalak curriculumetik kanpoko jarduretarako erabiltzen dira ikastetxean. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC262Q04DA | Gailu digitalak informatika geletan soilik erabiltzen dira. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC262Q05DA | Ikasleek ikastetxeko gailu digitalak etxera eraman ditzakete ikasteko. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC262Q06DA | Ikasleek gailu digital propioak eramaten dituzte, ikastetxean ikasteko. | ☐ 01 | ☐ 02 |

**SC190 Honako adierazpen hauek ba al dagozkio zuen ikastetxeari?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez |
|---|---|---|---|
| SC190Q01JA | Ikastetxeak idatzizko adierazpena du ikastetxeko instalazioetan gailu digitalen erabilera orokorrari buruz. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q02JA | Telefono mugikorrak erabiltzea ez dago baimenduta ikastetxeko instalazioetan. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q05JA | Ikastetxeak arau formalak ditu, zenbait irakasgai irakasteko eta ikasteko gailu digitalen erabilerari buruz. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q06JA | Irakasleek arauak ezartzen dituzte, ikasleek eskoletan gailu digitalak noiz erabil ditzaketen arautzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q07JA | Irakasleek ikasleekin batera ezartzen dituzte klasean edo ikastetxean baliabide digitalen erabilerari buruzko arauak. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q08JA | Ikastetxeak programa zehatz bat du, ikasleak Interneteko portaera arduratsurako prestatzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q09JA | Ikastetxeak berariazko politika bat du, irakaskuntzan eta ikaskuntzan sare sozialen (adib., Facebook®) erabilerari buruz. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q10JA | Ikastetxeak berariazko programa bat du, irakasleak elkarlanean aritzeko gailu digitalen erabileran. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC190Q11JA | Ikastetxeak denbora dauka programatuta irakasleen arteko bileretarako, gailu digitalak eskatzen dituzten pedagogiak eta irakas-materialak trukatu, ebaluatu edo sor ditzaten. | ☐ 01 | ☐ 02 |

**SC268 Zenbateraino zaude ados edo ez zure ikastetxeak baliabide digitalen bitartez irakasteko dituen helburuei buruzko honako baieztapen hauekin?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

*(Ez baduzu baliabide digitalik edo ez badituzu erabiltzen, hautatu "Ez da aplikagarria".)*

| | | Ez nago batere ados | Ez nago ados | Ados nago | Erabat ados nago | Ez da aplikagarria |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC268Q01DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, irakaskuntza eraginkorragoa izateko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q02DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, ikasleen beren kabuz ikasteko gaitasunak indartzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q03DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, ikaskuntza pertsonalizaturako aukerak eskaintzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q04DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, ikasleen taldekako lanerako gaitasuna areagotzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q05DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, ikasleei ikastetxetik kanpo modu seguruan nola erabili irakasteko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q06DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, ikasleen bilakaeraren jarraipena egiteko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SC268Q07DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, errendimendu baxuko ikasleei ikaskideen mailara heltzen laguntzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268Q08DA | Baliabide digitalak erabiltzen ditugu, errendimendu altuko ikasleak erakartzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 | ☐ 05 |
| SC268 | *Baliabide digitalak gailu digitalak edo hardwarea dira (adib., ordenagailuak, tabletak, smartphoneak, 3D inprimagailuak), baita softwarea (adib., programak, aplikazioak, komunikazio-tresnak, ikasteko tresna hezitzaileak) zein online baliabideak ere (adib., webguneak, web-atariak).* | | | | | |

**SC266 Zein lehentasun ematen diezue honako irakaskuntza-helburuei zure ikastetxean?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Lehentasunik ez | Lehentasun txikia | Lehentasun ertaina | Lehentasun handia |
|---|---|---|---|---|---|
| SC266Q01DA | Ikasleek beren kabuz ikasteko duten gaitasuna handitzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q02DA | Ikasleek beren ikaskuntza planifikatzeko, monitorizatzeko eta ebaluatzeko duten gaitasuna sustatzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q03DA | Ikastean laguntza noiz eta nola eskatu behar duten irakastea ikasleei. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q04DA | Irakasleengandik jasotzen duten feedbacka nola erabili behar duten irakastea ikasleei. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q05DA | Ikasketekin lotura duten emozio negatiboak kudeatzeko moduari buruzko aholkuak ematea ikasleei (adib., frustrazioa, antsietatea, aspergura). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q06DA | Talde-lanen barruan feedbacka elkarri nola eman irakastea ikasleei. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC266Q07DA | Proiektu konplexuak hainbat egunetan zehar gauzatzeko prestatzea ikasleak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |

**SC251 Zein neurritan zaude ados honako baieztapen hauekin?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Ez nago batere ados | Ez nago ados | Ados nago | Erabat ados nago |
|---|---|---|---|---|---|
| SC251Q01DA | Nire ikastetxean ingurumen-arazoak irakasten dira ikasgai askotan. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC251Q04DA | Nire ikastetxeak irteerak antolatzen ditu, ikasleek ingurumen-arazoak aztertu ahal izateko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC251Q05DA | Nire ikastetxeak irakasleak animatzen ditu frogak edo esperimentuak egitera, ingurumen-arazoak azaltzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC251Q06DA | Nire ikastetxeak hainbat jatorritako materialak (adib., dokumentalak, artikuluak) erabiltzea sustatzen du, ingurumen-arazoak ikasgelan eztabaidatzeko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC251Q07DA | Nire ikastetxeak ingurumen-arazoetarako irtenbideak sustatzen ditu. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC251Q09DA | Nire ikastetxean ikasleen ingurumen-arazoei buruzko ezagupenak formalki ebaluatzen dira. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |

**SC250** **Zure ikastetxeak zenbatean behin eskaintzen die ikasleei honako jarduera hauetan parte hartzeko aukera?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Inoiz ez | Batzuetan | Sarritan | Oso maiz |
|---|---|---|---|---|---|
| SC250Q01DA | Eskola-baratzea haztea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q02DA | Ikasleen ingurumen-taldeetan parte hartzea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q03DA | Ikastetxe edo komunitate osoaren hondakin-bilketa. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q06DA | Birziklapen-programak. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q08DA | Hondakinen kudeaketa ikertzeko irteerak (adib., hondakin-urak, zabortegiak). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q09DA | Ingurumenean espezialistak diren hizlari gonbidatuak entzutea (adib., biologoak, ingurumeneko zientzialariak, ingurumeneko abokatuak). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q10DA | Irakasleek, ikasleek, gurasoek eta interesa duten komunitateko kideek osatutako ikastetxeko ingurumen-taldeetan parte hartzea, ikastetxearen jasangarritasunerako. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q12DA | Ikastetxeko eremuen, tokiko parkeen eta jolas-eremuen biodibertsitatea ikuskatzea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q13DA | Finkatutako ingurumen-helburuak betetzean ikastetxearen lorpena ospatzea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC250Q15DA | Haien herrialdeko edo beste herrialde bateko herri indigenen jakintza partekatzea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| SC250Q16DA | Ingurumeneko proiektuak: herritarren zientzia, komunitate-zientzia, boluntariotzaren kudeaketa, ikerketa zientifikoan parte-hartze publikoa (adib., bertako ingurune batean dauden landareak eta animaliak zenbatzea eta identifikatzea). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC250Q17DA | Hondamendi naturalak jasan dituzten komunitateei laguntzea (adib., ekaitzak, baso-suteak, lehorteak). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC250Q18DA | Ingurumen-lorpenak eta -arauak ikastetxearen buletinetan, webgunean eta erakusleihoetan erakustea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |
| SC250Q19DA | Bertako ingurumen-erakunde batekin lankidetzan aritzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 | ☐ 04 |

**SC037 Honako neurri hauek hartzen al dira zuen ikastetxean, kalitatea ziurtatzeko eta hobekuntzak egiteko; eta hala bada, nork hartzen ditu?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai, nahitaezkoa da; adib., erkidegoko edo Ministerioko arauen arabera | Bai, ikastetxearen ekimenez | Ez |
|---|---|---|---|---|
| SC037Q01TA | Barne-ebaluazioa/autoebaluazioa. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q02TA | Kanpo-ebaluazioa. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q03TA | Eskola-curriculumeko profilari eta ikasketa-helburuei buruzko zehaztapen idatziak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q04TA | Ikasleen errendimenduaren estandarrei buruzko zehaztapen idatziak. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q05NA | Datuak sistematikoki gordetzea; hala nola irakasleen edo ikasleen asistentzia eta garapen profesionala. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q06NA | Ikasleen azterketen emaitzak eta notak sistematikoki gordetzea. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q07TA | Ikasleei idatziko feedbacka eskatzea (adib., eskolei, irakasleei edo baliabideei buruz). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q08TA | Irakasleentzako tutoretza. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q09TA | Ikastetxea hobetzeko ohiko kontsultak aditu batekin edo gehiagorekin, gutxienez sei hileko epean. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC037Q12DA | Zientzietako ikasgaietarako (Biologia eta Geologia) politika estandarizatua ezartzea (hau da, eskola-curriculuma, irakas-material partekatuarekin, langileen hobekuntzarekin eta prestakuntzarekin batera). | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |

| | |
|---|---|
| SC037 | *Ikastxearen barne-ebaluazioa: ebaluazioa ikastetxeak kontrolatzen duen prozesu baten parte da; bertan ikastetxeak erabakitzen du zer arlo ebaluatuko diren. Ebaluazio hori ikastetxeko kideek edo ikastetxeak agindutako pertsonek/erakundeek egin dezakete.* |
| SC037 | *Ikastetxearen kanpo-ebaluazioa: ebaluazioa kanpoko erakunde batek kontrolatutako eta zuzendutako prozesu baten parte gisa. Ikastetxeak ez du definitzen zer arlo ebaluatuko diren.* |

**SC200 Pentsa ezazu zure ikastetxeko azken kanpo-ebaluazioan: honako hauek gertatu ziren?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez | Ez da aplikagarria |
|---|---|---|---|---|
| SC200Q01JA | Kanpo-ebaluazioen emaitzek ikastetxearen politikak aldatzea ekarri zuten. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC200Q02JA | Datuak erabili genituen ikastetxearen garapenerako, ekintza zehatzen plangintza egiteko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC200Q03JA | Datuak erabili genituen irakaskuntzaren hobekuntzarako, ekintza zehatzen plangintza egiteko. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC200Q04JA | Kanpo-ebaluazioaren emaitzetatik ateratako neurriak praktikan jarri genituen. | ☐ 01 | ☐ 02 | ☐ 03 |
| SC200 | *Kanpo-ebaluazioa: ebaluazioa kanpo-erakunde batek kontrolatu eta zuzentzen duen prozesu baten parte gisa. Ikastetxeak ez du definitzen zer arlo ebaluatuko diren.* | | | |

**SC032** **Azken ikasturtean zehar, metodo hauetakoren bat erabili al dute zure ikastetxean, irakasleen lanaren jarraipena egiteko?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Bai | Ez |
|---|---|---|---|
| SC032Q01TA | Ikasleen lorpenaren probak edo ebaluazioak. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC032Q02TA | Irakasleen arteko berrikustea (eskolen plangintza, ebaluazio-tresnak, eskolak). | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC032Q03TA | Zuzendariak edo zuzendaritza taldekoek ikasgela barruan egindako behaketak. | ☐ 01 | ☐ 02 |
| SC032Q04TA | Ikuskariek edo ikastetxez kanpoko beste pertsona batzuek ikasgela barruan egindako behaketak. | ☐ 01 | ☐ 02 |

**SC193 Zure ikastetxean, zer eragina izan dute irakasleen gaineko ebaluazioek honako hauetan?**

*(Hautatu erantzun bat ilara bakoitzean.)*

| | | Eraginik ez | Eragin txikia | Eragin ertaina | Eragin handia |
|---|---|---|---|---|---|
| SC193Q01WA | Soldata aldaketa. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q02WA | Finantza-gehigarria edo bestelako diru-saria. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q03WA | Lanbide garapenerako jardueretan parte hartzeko aukerak. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q04WA | Ibilbide profesionalean aurreratzeko probabilitatearen aldaketa. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q05WA | Zure esker ona publikoki aitortzea. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q06WA | Aldaketak haien lan-erantzukizunetan, lana atseginagoa egiten dutenak. | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |
| SC193Q07WA | Eginkizun bat irakaskuntza garatzeko ekimenetan (adib., curriculuma garatzeko lan taldea, ikastetxearen helburuen garapena). | ☐01 | ☐02 | ☐03 | ☐04 |

**SC025** **Azken hiru hilabeteotan, zure ikastetxeko irakasleen zer portzentajek hartu du parte etengabeko prestakuntza programa batean?**

*Etengabeko prestakuntza programa irakasteko gaitasunak edo jarduketa pedagogikoak areagotzeko diseinatutako programa formala da. Kualifikazio ofizial baten bitartez onetsi daiteke ala ez. Programak orotara egun bateko iraupena izan beharko du gutxienez, eta irakaskuntzara eta hezkuntzara bideratuta egon beharko du.*

